



# INTSULINEN EGUNERATZEA

## AURKIBIDEA

- ▶ SARRERA
- ▶ INTSULINEN SAILKAPENA
- ▶ INTSULINA MOTAK ETA TERAPEUTIKAN DUTEN TOKIA
- ▶ INTSULINA HARTZEKO GAILUAK
- ▶ ETENGABEKO INFUSIO BIDEZKO TERAPIA
- ▶ II. MOTAKO DIABETESA DUTEN PAZIENTEEK INTSULINA-TRATAMENDUA HASTEKO JARRAIBIDEAK
- ▶ ETA INTSULINA BASALAREKIN DESIRAGARRI DIREN KONTROL-HELBURUAK ERDIESTEN EZ BADIRA?
- ▶ INTSULINAK EMATEKO ORDUAN IZATEN DIREN AKATSAK
- ▶ FUNTSEZKO IDEIAK



Osakidetza


## SARRERA

Intsulina ezinbestekoa da I. motako diabetes mellitus (DM1) daukaten pazienteen tratamenduan, bai eta II. motako diabetesa (DM2) daukaten paziente askoren tratamenduan ere, baldin eta ahozko diabetes-kontrakoak (ADK) nahikoak ez badira gluzemia-kontrola lortzeko edo diagnosia egiteko unean hipergluzemia larria bada<sup>1</sup>.

Intsulina-jariaketaren eta horrekiko erresistentziaren arteko orekaren araberakoa da intsulina-terapiaren beharra. Langerhans-en irlen edo pankrearen transplantea jaso ezean, DM1 duten paziente guztiak beharko dute intsulina-tratamendua<sup>2</sup>. Bestalde, DM2 daukaten paziente ugarik beharko dute intsulina exogenoa, intsulina endogeno gutxiago ekoizteagatik<sup>2,3</sup>.


Euskal Autonomia Erkidegoan (EA), intsulinen preskripzioa % 18 hazi da azken zazpi urteotan, eta gastua % 19 handitu (ikus 1. grafikoa). Intsulina motari erreparatuta, ikus daiteke preskripzioen erdia glargina intsulinarri dagokiola (ikus 2. grafikoa).

1. grafikoa. **Intsulinen preskripzioaren bilakaera EAEn (2010tik 2016ra bitartean)**



Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailearen Farmaziako Zuzendaritzaren Prestazio Farmazeutikoen Zerbitzuaren informazio-sistemakoak dira datuak.

2. grafikoa. **Preskripzioa intsulina moten arabera EAEn (2016. urtea)**




Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailearen Farmaziako Zuzendaritzaren Prestazio Farmazeutikoen Zerbitzuaren informazio-sistemakoak dira datuak

Azken urteotan, zenbait berrikuntza izan dira intsulinen merkatuan, formatu eta molekula berriak agertu baitira, baita intsulina bioantzeoak ere, besteak beste. Buletin honen helburua da DM2 delakoan erabilgarri dauden intsulinei eta horien erabilerari buruzko ikuspegia eguneratua helaraztea.

## INTSULINEN SAILKAPENA

Egun, hainbat motatako intsulinak daude, askotariko eragin-profilekoak, atzeratzaileak erantsiz nahiz molekularen aldaketa txikiak eginez lortu direnak (ikusi 1. irudia)<sup>4</sup>.

### 1. irudia. Intsulinen profil farmakozinetikoak



Iturria:  
<https://www.diabepedia.com.ar/nueva-insulina-degludec-tresiba/>

Jatorria aintzat hartuz gero, giza intsulinak eta giza intsulinaren analogoak bereiz daitezke. Farmakozinetika abiapuntu hartuta, eragin azkarrekoak (prandialak), erdi-mailakoak eta eragin luzekoak (basalak) izan daitezke intsulinak. Aurrez nahastutako intsulinak ere badaude, non eragin azkarreko intsulinak eta erdi-mailakoak nahasten baitira, proportzio ezberdinetan (ikusi 1. taula).

### 1. taula. Intsulinen ezaugarriak

	FARMAKO-ZINETIKA	INTSULINA MOTA	AURKEZTEKO MODUA	ERAGINA-REN HASIERA	GEHIENEKO PUNTUA	ERAGINAREN IRAUPENA	KOSTUA (€) / 28 EGUN (40 U/EGUN)
PRANDIAL	Eragina Ultraazkarra	Lispro	Humalog® KwikPen	5-15 min	45-75 min	2-4 o	35,05
			Humalog® 200 KwikPen				35,00
			Humalog® biala				24,02
		Aspart	Novorapid® Flexpen				35,05
			Novorapid® Penfill				32,26
			Novorapid® Pumpcart				32,81
		Glulisina	Novorapid® biala*				31,42
			Apidra® SoloStar				35,05
			Apidra® kartutxoak				35,05
	Eragin azkarra		Apidra® biala*				35,05
BASALA	Erdi-mailako eragina	Erregularra	Actrapid® Innolet	30 min inguru	2-4 o	5-8 o	27,89
			Actrapid® biala*				16,69
			Humulina® regular biala				17,25
		NPH	Insulatard® Flexpen				28,34
			Insulatard® biala*	2 o inguru	4-8 o	12 o	16,69
			Humulina® NPH KwikPen				28,34
			Humulina® NPH biala*				17,25

.../...

	FARMAKO-ZINETIKA	INTSULINA MOTA	AURKEZTEKO MODUA	ERAGINA-REN HASIERA	GEHIENEKO PUNTUA	ERAGINAREN IRAUPENA	KOSTUA (€) / 28 EGUN (40 U/EGUN)	
BASALA	Eragin motela	Detemir	Levemir® Flexpen	2 o inguru	Gehieneko punturik gabe	12-18 o	58,58	
			Levemir® Innolet				58,58	
		Glargina	100 U/ml		Gehieneko punturik gabe	20 - 24 o	43,01	
			Lantus® SoloStar				43,01	
			Abasaglar® Kwikpen				43,01	
			Lantus® kartutxoak				43,01	
			Lantus® biala				43,01	
		Degludec	300 U/ml		Gehieneko punturik gabe	> 36 o	43,09	
			Toujeo® SoloStar			> 40 o	82,09 **	
		Tresiba 100® Flex Touch						
NAHASKEKETAK	Giza intsulinarekin	Regular + NPH	Humulina® 30:70 KwikPen	30 min	Bikoitza	12 o	28,34	
			Humulina® 30:70 biala*				17,04	
			Mixtard® 30 Innolet				28,34	
			Mixtard® 30 biala*				16,69	
	Intsulinaren analogoekin	Aspart + NPA	NovoMix® 30 FlexPen	10-15 min		12 o	36,4	
			NovoMix® 50 FlexPen				36,4	
		Lispro + NPL	NovoMix® 70 FlexPen				36,4	
			Humalog® Mix 25 KwikPen				36,4	
			Humalog® Mix 50 KwikPen				36,4	

\* Osasun Sistema Nazionalaren finantzakatetik at. \*\* I Degludec-ek Osasun Sistema Nazionalean prezio baxuago du

- NPA: aspart protamina intsulina; NPH: giza intsulina isofanikoa; NPL: lispro protamina intsulina. Erdi-mailako eragina duten analogoak dira, berez bakarrik merkaturatzetan ez direnak, bai ordea nahasturik.
- Intsulina guziak datoz 100 U/ml-ko kontzentrazioetan, honako hauek salbu: Humalog® KwikPen; 200 U/ml eta Toujeo® SoloStar; 300 U/ml.
- Intsulina-nahasketak: agertzen den zenbakia (bat baino ez badago) edo lehen agertzen dena (bi badaude) nahasketak daraman intsulina prandialaren proportzioari dagokio.

## INTSULINA MOTAK ETA TERAPEUTIKAN DUTEN TOKIA

Intsulinaren farmakozinetika hobetze aldera, zenbait aldaketa egin dira horren molekularen analogoak sintetizatzeko: prandialak (lispro, aspart, glulisina) eta basalak (glargina, detemir). Horiek hobeto errepikatzen dituzte giza intsulina arruntaren eta Neutral Protamine Hagedorn (NPH) intsulinaren jariaketa fisiologikoa, hurrenez hurren. NPH intsulinaren aldean, eragin moteleko analogoek iraupen luzeagoa, aldakortasun txikiagoa, aurreikuspen handiagoa eta gaueko hipogluzemia gutxiago eragiten dituzte<sup>1</sup>.

### • INTSULINA PRANDIALAK

Talde honetan daude **intsulina arrunta** edo disolbagarria eta **aspart**, **glulisina** eta **lispro** **analogoak**. Analogoen eragina azkarrago hasten da (10-15 minututan giza intsulina azkarren 30 minutuen aldean), eta gutxiago irauten du. Otorduen aurretik edo ondoren hartzeko aukera ematen dutenez gero, eragin azkarreko analogoek giza intsulina arrunt bidezko tratamendua baino onuragarriagoak izan litezke otorduen ordutegiak moldatu behar dituzten pazienteen kasuan<sup>2</sup>. National Institute for Health and Care Excellence (NICE) erakundeak otorduen aurretik injektio bidezko analogoak erabiltzea gomendatzen du, intsulina arrunta erabili ordez. Analogo hauek berdinak dira eraginkortasunari eta segurtasunari dagokionez. Hobe da pazientearen lehentasunak errespetatzea<sup>5</sup>.

Sendagaien Europako Agentziaren (EMA) Committee for Medicinal Products for Human Use (CHMP) batzordeak ontzat eman du **aspart intsulinaren formulazio berri bat (Fiasp®)**; izan ere, nikotinamida (B3 bitamina) erantsita, NovoRapid® aspart intsulina baino askoz azkarrago xurgatzen da hasieran. Jaten hasi baino 2 minuto lehenago eta 20 minuto geroago har daiteke. Ez dago oraindik merkaturatuta Spainian<sup>6</sup>.

## • INTSULINA BASALAK

**NPH intsulina.** Azkenaldian gutxiago erabiltzen bada ere, glargina intsulinaren eta beste analogo batzuk gehiago preskribatzen direlako, intsulinak segurua izaten jarraitzen du hipogluzemia pairatzeko arrisku txikia duten pazienteentzat, eta are merkeagoa da<sup>3,7</sup>.

25-30 unitateko dosira helduz gero, 2 dosiko posología xedatu beharko da gaueko hipogluzemiarik gertatu ez dadin edo, bestela, analogo basalera aldatu (glargina edo detemir)<sup>7</sup>.

Eragin moteleko intsulina-analogoa aproposak dira hipogluzemiarik jasateko arrisku handia duten pazienteentzat, gaueko gertakariak nagusi direnean eta dosi bakarra aukerarik onena denean laguntza- edo gizarte-arazoak dauden kasuetan<sup>7</sup>.

**Glargina intsulina.** Ez du gehieneko puntu nabarmenik, eta 24 ordu irauten du eraginak. Egunean behin harutta, egunean behin edo birritan jarritako NPH intsulinaren antzekoa da hemoglobina glikosilatua ( $HbA_{1c}$ ) murrizteko eraginkortasuna. DM2 duten pazienteei buruz berriki egindako metaanalisi batek, glargina intsulina eta NPH intsulina (egunean behin edo birritan hartuta) erkatzen dituenak, aditzera eman du  $HbA_{1c}$  murrizteko eraginkortasuna antzekoa dela kasu bietan; hala ere, gaueko hipogluzemien eta hipogluzemia sintomatikoen intzidentziak, bietan bakanak badira ere, urriagoak izan ziren glargina intsulinarekin tratatutako pazienteengan, NPH intsulinarekin alderatuta. Beraz, intsulina glargina erabilgarria izan daiteke gaueko hipogluzemien aurrekariak dituzten pazienteentzat edota 24 orduan behin hartzeko pauta terapeutikoak aginduak betetzeko abantaila handia eskaintzen dienentzat<sup>2,8</sup>.

Segurtasunari dagokionez, glargina intsulinak NPH intsulinak baino erretinopatia diabetikoa eta minbizia pairatzeko arrisku handiagoa ekar lezakeela esan bada ere, 10 urteko azterlan batean ez da halakorik ikusi<sup>2</sup>. Segurtasun kardiobaskularra dela eta, ORIGIN ikerlanean, batez beste 6,2 urteko segimendua eginez, ez da antzeman alde nabarmenik glargina intsulina eta tratamendu arrunta hartzen duten DM2 daukaten pazienteengan gertakari kardiobaskularrei dagokienez<sup>9</sup>.

**Glargina intsulina bioantzekoa (Abasaglar®).** 2015eko urrian, glargina intsulinaren lehen bioantzekoa merkaturatu zen. Glargina intsulinaren (Lantus®) antzeko eraginkortasun- eta segurtasun-mailak ditu. [Ikusi bioantzeko INFAC buletina](#).

**Kontzentrazio handiko glargina intsulina (Toujeo®).** 2016ko martxoan, Lantus® intsulinaren patentea iraungitakoan, laborategi berak Toujeo® merkaturatu zuen, 300 unitate/ml-ko kontzentrazioa duen glargina intsulina, hain zuzen ere. Horri esker, injekzioen bolumena murriztu daiteke. Ezin dira trukatu, baldin eta dosiak behar bezala doitzetan ez badira. DM1 alderatzeko egin den proba bakarrean eta DM2i buruzko 3 saikuntza klinikoko metaanalisi batean Toujeo® eta Lantus® (100 unitate/ml) glargina intsulinaren eraginkortasuna eta segurtasuna erkatu ziren, bai eta ikusi ere antzekoak zirela kasu bietan. 6 hilabeteren buruan, Toujeo® intsulinarekin Lantus® intsulinarekin baino % 18 eta % 12 handiagoa izan zen intsulina basalaren dosia DM1en eta DM2n hurrenez hurren. Ez zen alderik egon gaueko hipogluzemiei eta hipogluzemia larriei dagokienez DM1 daukaten pazienteengan; DM2 duten pazienteen kasuan, gaueko hipogluzemia gutxiago izan ziren Toujeo® intsulinarekin hiru alderatze-probetako bitan<sup>10,11</sup>.

Toujeo® intsulina bolumen txikiagoa abantaila da paziente diabetikoentzat, batez ere intsulinarekiko erresistentzia duten eta intsulina basalaren dosi handiak behar dituzten DM2 gaixoentzat<sup>10, 11</sup>. Toujeo® intsulinak, halaber, malgutasun handiagoa ematen du, ohi baino 3 ordu lehenago edo geroago har daiteke eta.

**Detemir intsulina.** Glargina intsulinak ez bezala, 24 ordu baino gutxiago irauten du. Saiakuntza klinikoetan ikusi zen NPH intsulina bezain eraginkorra zela  $HbA_{1c}$  murrizteko; halaber, gaueko hipogluzemia arinen intzidentzia txikiagoa bazen ere, ez zen alde nabarmenik egon larrieta, ezta kopuru osoan ere. DM1 eta 2 duten pazienteekin egindako probetan lortutako datuek aditzera ematen dute paziente gehienek bi dosi behar dituztela estaldura basal onargarria eta gluzemia-kontrol egokia erdiesteko<sup>2</sup>.

**Degludec intsulina.** Giza intsulinaren eragin luzeko analogoa da. Bere molekulan egindako aldaketen ondorioz, 40 ordu baino gehiago irauten du eraginak, eta aldakortasun plasmatiko intra-individual txikitu egiten da egunean dosi bakarra hartuta<sup>2,12</sup>. Hori dela medio, dosia egunean behin ordu berean hartzea gomendatzetan bada ere, intsulina honek aukera ematen du malgutasun handiagoz jarduteko, baldin eta injekzio batetik bestera 8 ordu igarotzen badira gutxienez. Egindako saiakuntza klinikoetan, degludec intsulina ez zen glargina intsulina eta detemir baino okerragoa izan  $HbA_{1c}$ -ren murrizketan. Degludec intsulina eragin luzeko beste intsulina-analogoa batzuen antzeko tasekin erlazionatu zen, baieztagatutako erabateko hipogluzemiei eta hipogluzemia larriei dago-kienez, DM1en eta DM2n<sup>12</sup>. DM1 pazienteetan, gaueko hipogluzemia gutxiago gertatu ziren; aurretik intsulina hartzen zuten DM2 pazienteetan, erabateko eta gaueko hipogluzemiarik gutxiago gertatu ziren, glargina intsulinarekin alderatuta ([BEGIN BASAL-BOLUS DM2 entseguia](#)).

Gaueko gertakari hipogluzemikoetan degludec intsulinak glarginarekin alderatuta eskaintzen duen abantaila (1,5 gertakari gutxiago paziente eta urte bakoitzeko DM1en eta 0,45 gertakari gutxiago DM2n) desagertu egiten da gauekotzat jotzen den ordutegia bi orduz luzatzen denean (00:00etik 08:00etara, eta ez 00:00etik 06:00etara), FDAk eginiko metaanalisi batean ikusten den bezala<sup>13</sup>.

2016ko ekainean, SWITCH 1 eta 2 saiakuntzen (glargina intsulinarekin gurutzatutako saiakuntza klinikoak) emaitzak aurkeztu ziren American Diabetes Association (ADA) elkartearren batzarrean. Horien arabera, deglucidec intsulinak glargina intsulinak baino hipogluzemia sintomatiko eta gaueko hipogluzemia gutxiago eragin zituen DM1 zein DM2 duten pazienteengan. Oraindik ez dira saiakuntzak argitaratu; hortaz, ezin da horiei buruzko irakurketa kritikorik egin<sup>14,15</sup>.

Segurtasun-profilari dagokionez, 2016ko azaroaren 30ean DEVOTE azterlanaren emaitzak aurkeztu ziren, deglucidec intsulinaren segurtasun kardiobaskularra evaluatze aldera. Ez zen ezberdintasun nabarmenik egon geratikari kardiobaskularretan deglucidec eta glargina intsulinaren artean. Hipogluzemia larri eta gaueko hipogluzemia gutxiago antzeman ziren deglucidec intsulinarekin. Oraindik ez da saiakuntza argitaratu; hartara, ezin da horri buruzko irakurketa kritikorik egin<sup>16</sup>. Glargina intsulina baino garestiagoa da, eta ikuskaritzaren oniritzia behar du.

## INTSULINA HARTZEKO GAILUAK

Intsulinak hartzeko gailu ugari daude, fabrikatu dituen laborategiaren eta merkatuaren bilakaeraren arabera; hala ere, botatzeko lumak erabiltzen dira gaur egun gehienbat (ikusi 2. taula).

2. taula. **Intsulina hartzeko gailuen ezaugarriak**

	GAILUA	EZAUGARIAK
Kartutxoak	NOVOPEN ECHO (Novo Nordisk)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kartutxoak aldatu eta luman erantsi behar dira</li> <li>Azken aplikazioaz geroztik igarotako denbora eta data erregistratzen dituen memoria-funtzioa du</li> <li>Intsulinaren unitate erditan doitzeko aukera ematen du</li> </ul>
	JUNIORSTAR (Sanofi Aventis)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Luman erantsi beharreko kartutxoak erabiltzen ditu.</li> <li>Gehieneko karga-dosia: 80 unitate</li> <li>Intsulinaren unitate erditan doitzeko aukera ematen du</li> <li>Injektatzeko indar gutxiago behar da</li> </ul>
Lumak	SOLOSTAR (Sanofi Aventis)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gehieneko karga-dosia: 80 unitate</li> <li>Aukera dago dosia zuzentzeko bota beharrik gabe</li> </ul>
	INNOLET (Novo Nordisk)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gehieneko karga-dosia: 50 unitate</li> <li>Aukera dago dosia zuzentzeko bota beharrik gabe</li> <li>Ergonomikoa</li> <li>Zenbaki handiak (bosten multiploak)</li> <li>Topea du puntzioak, horren eremuan mugikortasuna saihesteko</li> <li>Handi samarra</li> </ul>
	FLEXPEN (Novo Nordisk)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gehieneko karga-dosia: 60 unitate</li> </ul>
	KWIKPEN (Lilly)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gehieneko karga-dosia: 80 unitate</li> </ul>
	FLEXTOUCH (Novo Nordisk)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gehieneko karga-dosia: 80 unitate</li> <li>Gailuak malguki bat du, injekzioa hain mingarria izan ez dadin</li> <li>Soinu ezberdina egiten du dosia handitzean edo txikitzean</li> </ul>

- Intsulina-kaxa guziak daude Braille hizkuntzan.
- Gailu guziek ematen dute intsulina unitate batean doitzeko aukera (Novopen Echo eta JuniorStar intsulinek unitate erditan doitzea halbidetzen dute).

## ETENGABEKO INFUSIO BIDEZKO TERAPIA

Etengabeko azalpeko intsulina infusio-ponpa (intsulina-ponpa edo ISCI) bidezko terapiaren helburua da intsulina-emari zehatz, etengabe eta kontrolatua bermatzea, gluzemia-xedeak betetze aldera. Ponpak aukera ematen du intsulinaren kantitate basalak programatzeko, bai eta boloak gehitzeko edo unean-unean dosiak handitzeko, pazienteak berak doitu ditzakeen pultsuen bitartez. Intsulina-dosi anitz bidezko terapiak (MDI) ez

bezala, etengabeko azalpeko intsulina infusio-ponpak bide ematen du kontrol metaboliko ezin hobea izateko, egunean zehar intsulina askotan injektatu beharrik gabe; ordainetan, hala ere, erantzukizun, diziplina, entrenamendu, hezkuntza eta ardura handiak behar dira. Etengabeko azalpeko intsulina infusio-ponpa, hortaz, ez da DM1 duten paziente guztientzako aukera; aitzitik, kontu handiz hautatu beharko dira paziente-hautagaiak, kontrol metabolikoa, konplikazio akutuak pairatzeko arriskua eta kostu ekonomiko handiagoa aintzat harturik<sup>17</sup>. Bereziki erabilgarria da populazio pediatrikoarentzat; izan ere, oso garrantzitsua da gaixotasunaren hasteria-hasieratik tratamendu intentsiboa egitea haurrengan, ahalik eta gluzemia-kontrol normalena izateko eta epe luzera konplikazioak saihesteko edo atzeratzeko<sup>18</sup>.

Honako hauek dira etengabeko azalpeko intsulina infusio-ponparen indikazio nagusiak<sup>19</sup>:

1. Xede den kontrol metabolikoa (ezberdina pazientearen arabera) erdiesten ez duten DM1 daukaten pazienteak, intsulina-dosi anitz bidezko terapiarekin ondo konplitu arren.
2. Hipogluzemia larriak edo arinak, gauekoak nahiz oharkabekoak edota errepikapenezkoak jasaten dituzten DM1 duten pazienteak.
3. Gluzemia-alda kortasun handia duten DM1 daukaten pazienteak.

## II. MOTAKO DIABETESA DUTEN PAZIENTEEK INTSULINA-TRATAMENDUA HASTEKO JARRAIBIDEAK

Oro har, ahozko sendagaietan nahiz intsulinikoak ez direnek kontrol metabolikoa lortzeko helburuak betetzen ez dituztenean gertatzen da. Denbora igaro ahala, eta DM2 tratatzen urte luze eman ondoren, gerta liteke intsulina-eskasia gertatzea, ahozko hipogluzemia-eragileen porrot sekundarioa dakarrena<sup>7</sup>; hartara, ez da intsulina mehatxu bezala edo DM2 duen pazientearen porrotaren froga bezala erabili behar gluzemia-zifratik kontrolatu ez izanagatik<sup>3</sup>.

Intsulinaren hasierako pautari dagokionez, eta intsulinikoak ez diren diabetes-kontrakoen porrota ikusirik, gaurdaino ez dugu morbitudinaren gaineko daturik, eta bakanak dira bizi-kalitateari, atxikiturari eta kostu-eraginkortasunari buruzkoak epe ertain edo luzera. Beraz, HbA<sub>1c</sub>-ren tarteko aldagaiaren emaitzetan, pazientearen profilean eta tratamenduaren kostuan oinarrituko da erabakia<sup>7</sup>.

Intsulinikoak ez diren diabetes-kontrakoei intsulina basala eranstea gomendatzen da tratamendua hasteko. NPH edo determir intsulinen kasuan, ohera joan aurretik 10 U edo 0,2 U/kg-ko dosiekin hasiko da, eta eguneko edozein ordutan glargina edo deglucose intsulina baldin bada. Doitzeko, 2 U intsulina gehituko dira 3-5 egunetik behin, < 130 mg/dl-ko gluzemia basala lortu arte. Hipogluzemiarik jazotzekotan, 4 U txikituko da dosia.

Eskuarki, intsulinikoak ez diren diabetes-kontrako medikamentuei eustea gomendatzen da, sulfonilureak edo repaglinida izan ezik intsulina prandialak barne dituen pautan, hipogluzemiarik pairatzeko arriskuak, pisua, albo-ondorioak eta kostua aintzat hartuta, betiere<sup>20</sup>.

### ETA INTSULINA BASALAREKIN DESIRAGARRI DIREN KONTROL-HELBURUAK ERDIESTEN EZ BADIRA?

Intsulina basalaren tratamendua gorabehera, eta ahozko diabetes-kontrakoak hartu arren, ikuspuntu horri jarraikiz tratatutako DM2 duten paziente askok ez dute HbA<sub>1c</sub>-ren helburua lortzen, eta tratamendua areagotu behar dute<sup>21,22</sup>.

Ausazkotutako saiakuntza klinikoen eta behaketa-azterlanen gainean berriki egindako berrikuspen sistematiko batek ez du frogatu morbitudinaren kardiobaskularrean alderik dagoenik intsulina areagotzeko erregimen ezberdinaren artean, sistema basal plus delakoa, basal-bolo deritzona edo basal eta prandialaren nahasketak izanik ere<sup>23</sup>.

Terapia areagotzeko hiru modu daude:

1. **Intsulina prandialak.** Jan aurretik intsulina prandialeko boloak (arrunta edo eragin azkarreko analogoak) gehitzea, bakarra hasteko, otordu nagusian; hori da, hain zuen ere, pauta basal plus delakoa. Hasi intsulina azkarreko 4 Urekin bazkaldu baino lehen, eta joan doituz 1-2 unitate gehituta jan ostean < 180 mg/dl-ko gluzemiarik lortu arte.
- Kontrol egokia erdiesten ez bada, beharrezko da basal-bolo pautara aldatzea (hots, intsulina basalaren dosi bat eta intsulina prandialaren bi bolo hartzea)<sup>3,7</sup>. Hurrengo otordu oparoenean, 4 U intsulina gehituko dira eta jan osteko gluzemiekin doitu; beharrezkoa izatekotan, eragin azkarreko intsulina hartuko da 3 otorduen aurretik.

Dosi anitzeko basal-bolo pautek aukera ematen dute kontrol zorrotzagoa eramateko; moldakorragoak dira eta, hartara, errazago egokitzen dira aldatuz doazen bimoduetara. Hala ere, beharrezkoa da injekzio gehiago jartzea, eta sistema konplexuagoa da oro har<sup>7</sup>.

- 2. Nahasketak.** Intsulina basalaren dosi bakarra hartzeari utzi eta aurrez nahasturiko intsulina basalaren bi dosi hartzen hastea izango litzateke beste aukera bat. Eragin azkarreko edo ultraazkarreko intsulinen eta NPH-ren nahasketak dira<sup>3,7</sup>. Dosia kalkulatzeko, nahikoa da intsulina basalaren dosi osoa 2/3 eta 1/3eko bi zatitan zatitzea, gosaria eta afaria baino lehen hartuko liratekeenak, hurrenez hurren (oro har, 30/70 aurrenahasketa erabiliko da).

Aurrez nahastutako intsulinen pautak ez dira hain erraz doitzen, baina injekzio kopuru txikiagoa eskatzen dute, eta sistema simpleagoa da eskuarki. Hortaz, aukera aproposa da zenbait pazienterentzat, esate baterako: jateko ordutegi finkoak dituztenentzat, tratamendu konplexuagoren bati behar bezala atxikitzeko zailtasunak dituztenentzat (basal-bolo erregimena, kasurako) eta tratamendua beren kabuz doitu ezin dutenentzat<sup>7</sup>.

Gosariko nahasketa-intsulinaren dosia jan aurreko gluzemiaren arabera doituko da, eta afarikoa, berriz, afaldu aurretik gluzemia aintzat hartuta. Analogo azkarra proportzio handian duten nahasketen kasuan (50/50), jan osteko gluzemia ere hartu beharko da kontuan maiz.

Doikuntzak gorabehera, afaldu aurretik gluzemiak altuak badira edo proposatutako HbA<sub>1c</sub>-ren helburuak lortzen ez badira, gomendagarria litzateke aurrez nahastutako intsulinaren hirugarren dosia hartza bazkalordua baino lehen, 4 unitaterekin edo eguneko dosi osoaren % 10ekin hasita.

- 3. GLP-1en analogoak gehitzea.** Intsulina prandialarekin areagotu baino, GLP-1en analogo bat gehitu liteke baldin eta pazienteak 35 kg/m<sup>2</sup>-tik gorako gorputzeko masa-indizea badu, hipogluzemia-aurrekariak edo pairatzeko arriskuak baditu, intsulina dosi ugari hartu nahi edo ezin badu edota intsulina basalaren 0,7 unitate/kg bezalako dosiak edo handiagoak hartzen baditu<sup>7</sup>. NICEk paziente jakin batzuentzat gomendatzen ditu asoziazio horiek, arreta espezializatuko segimenduaren testuinguruan eta diziplina anitzeko talde baten laguntzarekin, betiere<sup>24</sup>.

Badira dosi finkoetako GLP-1en analogoen bi asoziazio intsulinarekin, baimenduta badaude ere merkataturatu ez direnak oraindik: **Degludec intsulina-liraglutida** (Xultophy®) eta **glargina intsulina-lixisenatida** (Suliquia®).

## INTSULINAK EMATEKO ORDUAN IZATEN DIREN AKATSAK

Arrisku handiko sendagaitzat jotzen da intsulina, gaizki erabiltzeak kalte larriak eragin baitiezazkieke pazienteei, baita heriotza ere. Jarraian, intsulina ematearekin loturiko eta saihets litzkeen zenbait akats jaso dira.

Bialak ospitalean erabiltzea:

- Akatsak dosifikazioan U edo UI siglak erabiltzeagatik kasuan kasuko zenbakiaren atzetik. Hobe da laburdurarik ez erabiltza unitate hitzaren ordez.
- Akatsak intsulina emateko orduan intsulinarako berariazkoak diren xiringak ez erabiltzeagatik; izan ere, bolumena agertzen da markaturik halakoetan, intsulina-unitateen ordez. Hobe da intsulina-unitateekin markatutako xiringak erabiltzea beti.
- Akatsak pediatriako dosifikazioan helduentzako xiringak erabiltzeagatik. Hobe da 0,5 intsulina-unitate doitzeko aukera ematen duten xiringak erabiltzea.

Lumen erabilera:

- Zenbat eta intsulina mota gehiago egon, orduan eta aukera gehiago egongo dira mota ezberdinak gaizki identifikatzeko eta elkarren artean nahasteko.
- Hainbeste intsulina daude merkaturaturik, non koloreen nazioarteko kodea ere ezarri baita horiek errazago identifikatzeko, baita herrialdetik kanpo ere. Hala bada, eragin azkarreko giza intsulina guztiak bereizgarri horia daramate; erdi-mailakoek (NPH), aldiz, berdea, eta nahasketek askotariko koloreak dituzte.
- Akatsak preskripzio elektronikoan (xirringa kopurua, injekzio edo egun bakoitzeko unitateen dosifikazioa, estandarizatu gabeko pauta mugikorrak).
- Akatsak dosifikazioan kontzentrazio handiko intsulina berriean (Humalog® Kwik-Pen 200 U/ml eta Toujeo® SoloStar 300 U/ml).

Pazienteak eta haien senideak hezteko eta ahalduntzeko prozesuak lagungarriak izan daitezke intsulina-tratamendua jasotzen duten pazienteen segurtasuna bermatzeko<sup>25</sup>.

## FUNTSEZKO IDEIAK

- DM1 duten paziente guztiekin eta DM2 daukaten askok intsuina erabili behar dute.
- Ahozko hipogluzemia-eragileen porrot sekundarioa izatekotan, intsuina basaleko pauta hastea da ohikoena, ahozko sendagaiaik hartzeari utzi gabe.
- Dosi anitzeko basal-bolo pautek aukera ematen dute kontrol zorrotzagoa eramateko; moldakorrangoak dira eta, hartara, errazago egokitzen dira aldatuz doazen bizimoduetara. Hala ere, beharrezkoa da injekzio gehiago jartzea, eta sistema konplexuagoa da oro har.
- Aurrez nahastutako intsuinen pautak ez dira hain erraz doitzen, baina injekzio kopuru txikiagoa behar dute, eta sistema simpleagoa da eskuarki. Hortaz, aukera apropoza da zenbait pazienterentzat.

## ESKERRAK

Virginia Bellidori (Gurutzetako Ospitaleko Endocrinologia Saila) eta Patxi Ezkurra (Zumaiako osasun-zentroa) eskerrak eman nahi dizkiegu testua berrikusteagatik, bai eta honako buletin hau prestatzean egindako iruzkin eta iradokizun egokiengatik ere.

## BIBLIOGRAFIA

1. Laudo C, Puigdevall V. Las insulinas basales más recientes, ¿realmente son más novedosas? *Med Clin (Barc)*.2016;147:297-99.
2. McCulloch DK. General Principles of insulin therapy in diabetes mellitus. UpToDate, Post TW (Ed), UpToDate, Waltham, MA. (Accedido en diciembre 2016). [online]: <https://www.uptodate.com/contents/general-principles-of-insulin-therapy-in-diabetes-mellitus?source=machineLearning&search=insulina&selectedTitle=4~130&sectionRank=1&anchor=H3#H3>
3. Pharmacologic approaches to Glycemic Treatment. *Diabetes Care* 2017;40 (suppl1): S64-S74. [online]: [http://care.diabetesjournals.org/content/diacare/40/Supplement\\_1/S64.full.pdf](http://care.diabetesjournals.org/content/diacare/40/Supplement_1/S64.full.pdf)
4. Llanes de Torres R. Insulinoterapia en Atención Farmacéutica. AMF 2011;7:208-12.
5. NICE. Type 1 diabetes in adults: diagnosis and management. Last updated: July 2016. [online]: <https://www.nice.org.uk/guidance/ng17>
6. Ficha técnica de FIASP® Insulina Aspart. [online]: [http://www.ema.europa.eu/docs/es\\_ES/document\\_library/EPAR\\_-\\_Product\\_Information/human/004046/WC500220890.pdf](http://www.ema.europa.eu/docs/es_ES/document_library/EPAR_-_Product_Information/human/004046/WC500220890.pdf)
7. Ezkurra P, coordinador. Fundación redGDPS. Guía de actualización en diabetes mellitus tipo 2. Badalona: Euromedice Vivactis; 2016. [online]: <http://www.redgdps.org/guia-de-actualizacion-en-diabetes-2016>
8. Owens DR, Traylor L, Mullins P, Landgraf W. Patient-level meta-analysis of efficacy and hypoglycaemia in people with type 2 diabetes initiating insulin glargine 100U/ml or neutral protamine Hagedorn insulin analysed according to concomitant oral antidiabetes therapy. *Diabetes Res Clin Pract*. 2017;124:57-65.
9. The ORIGIN Trial Investigators, Gerstein HC, Bosch J, Dagenais GR, Díaz R, Jung H, Maggioni AP, et al. Basal insulin and cardiovascular and other outcomes in dysglycemia. *N Engl J Med* 2012;367:319-28.
10. NICE. Type 1 diabetes mellitus in adults: high-strength insulin glargine 300 units/ml (Toujeo). 13 octubre de 2015. [online]: <https://www.nice.org.uk/advice/esnm62/chapter/Key-points-from-the-evidence>
11. NICE. Type 2 diabetes mellitus in adults: high-strength insulin glargine 300 units/ml (Toujeo). 2 diciembre de 2015. [online]: <https://www.nice.org.uk/advice/esnm65/chapter/Key-points-from-the-evidence>
12. Degludec intsuina. Aztertuko den medikamentu berriaren fitxa. 238 Zk. 2016 [online]: [http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/medicamentos\\_atencion\\_primaria/eu\\_def/adjuntos/I/intsuina-degludec/Degludec\\_intsuina\\_FI-TXA.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/medicamentos_atencion_primaria/eu_def/adjuntos/I/intsuina-degludec/Degludec_intsuina_FI-TXA.pdf)
13. Jean-Marc Guettier, MDCMClinical Perspective of Hypoglycemia Analyses and Results Endocrinologic and Metabolic Drugs Advisory Committee Meeting November 8, 2012 slide 24-25. [online]: <http://www.fda.gov/downloads/advisorycommittees/committeesmeetingmaterials/drugs/endocrinologicandmetabolicdrugsadvisorycommittee/ucm330923.pdf>
14. SWITCH 1: Reduced Hypoglycemia with Insulin Degludec (IDeg) vs. Insulin Glargine (IGlar), Both U100, in Patients with T1D at High Risk of Hypoglycemia: A Randomized, Double-Blind, Crossover Trial <https://diabetes.elsevierresource.com/sites/diabetes.elsevierresource.com/files/switch1.pdf>

15. SWITCH 2: Reduced Hypoglycemia with Insulin Degludec versus Insulin Glargine, both U100, in Patients with T2D at High Risk of Hypoglycemia: A Randomized, Double-Blind, Crossover Trial [https://diabetes.elsevierresource.com/sites/diabetes.elsevierresource.com/files/switch\\_2.pdf](https://diabetes.elsevierresource.com/sites/diabetes.elsevierresource.com/files/switch_2.pdf)
16. DEVOTE trial. <https://www.epgonline.org/global/news/novo-nordisk-announces-positive-results-of-devote-cv-outcomes-trial-for-tresiba--insulin-degludec-for-treatment-of-type-2-diabetes-patients-.html>
17. Grupo de trabajo de la Guía de Práctica Clínica sobre Diabetes mellitus tipo 1. Guía de Práctica Clínica sobre Diabetes mellitus tipo 1. Plan de Calidad para el Sistema Nacional de Salud del Ministerio de Sanidad y Política Social. Agencia de Evaluación de Tecnologías Sanitarias del País Vasco-Osteba; 2012. Guías de Práctica Clínica en el SNS: OSTEBA n.º 2009/10 [http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osteba\\_publicaciones/es\\_osteба/adjuntos/GPC12\\_01c.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osteba_publicaciones/es_osteба/adjuntos/GPC12_01c.pdf)
18. Lynne L Levitsky, Madhusmita Misra. Management of type 1 diabetes mellitus in children and adolescents. UpToDate, Post TW (Ed), UpToDate, Walt-ham, MA. (Accedido en febrero 2017). [online]: [http://www.uptodate.com/contents/management-of-type-1-diabetes-mellitus-in-children-and-adolescents?source=search\\_result&search=management+of+type+1+diabetes+mellitus+in+children&selectedTitle=1%7E150](http://www.uptodate.com/contents/management-of-type-1-diabetes-mellitus-in-children-and-adolescents?source=search_result&search=management+of+type+1+diabetes+mellitus+in+children&selectedTitle=1%7E150)
19. Guía rápida ISCI. Grupo de trabajo de Tecnologías Aplicadas a la Diabetes de la SED. [http://www.sediabetes.org/modulges/worckspace/publico/modulos/web/docs/apartados/30/180515\\_080929\\_6909814927.pdf](http://www.sediabetes.org/modulges/worckspace/publico/modulos/web/docs/apartados/30/180515_080929_6909814927.pdf)
20. Vos RC, van Avendonk MJP, Jansen H, Goudswaard AN, van den Donk M, Gorter K, Kerssen A, Rutten GEHM. Insulin monotherapy compared with the addition of oral glucose-lowering agents to insulin for people with type 2 diabetes already on insulin therapy and inadequate glycaemic control. Cochrane Database of Systematic Reviews 2016, Issue 9. Art. No.: CD006992. DOI: 10.1002/14651858.CD006992.pub2.
21. Holman RR, Farmer AJ, Davies MJ, et al.; 4-T Study Group. Three-year efficacy of complex insulin regimens in type 2 diabetes. N Engl J Med 2009;361:1736–1747.
22. Mata-Cases M, Mauricio D, Franch-Nadal J. Clinical characteristics of type 2 diabetic patients on basal insulin therapy with adequate fasting glucose control who do not achieve glycated hemoglobin targets. J Diabetes. 2016.
23. Price HI, Agnew MD, Gamble J-M. Comparative cardiovascular morbidity and mortality in patients taking different insulin regimens for type 2 diabetes: a systematic review. BMJ Open 2015; 5: e006341. doi:10.1136/
24. NICE. Type 2 diabetes in adults: management. Published: Decembre 2016. Disponible en: nice.org.uk/guidance/ng28
25. Prevención de errores de medicación con las insulinas. Butlletí de Prevenció d'Errors de Medicació de Catalunya.2005; 13(2):1-8. [http://medicaments.gencat.cat/web/.content/minisite/medicaments/professionals/6\\_publicacions/bulletins/boletin\\_errores\\_medicacion/documents/arxius/But\\_EM\\_v13\\_n4\\_CAST.pdf](http://medicaments.gencat.cat/web/.content/minisite/medicaments/professionals/6_publicacions/bulletins/boletin_errores_medicacion/documents/arxius/But_EM_v13_n4_CAST.pdf)

Berrikuspen bibliografikoaren data: 2017ko martxoan

Mendikamentu berriek kontrako ondorioak dituztela susmatuz gero, oso-oso garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakojagoletza Unitateari jakinaraztea. OSABIDEren bitartez egin dezakezu jakinarazpena. Bestela, Osakidetza intranetaren bidez, txartel horia beteaz edo AEMPSen interneteko <https://www.notificaRAM.es>

Galdera, iradokizun edo parte-hartze lanak nori zuzendu: zure erakundeko farmazialaria edo MIEZ - tel. 945 01 92 66 - e-maila: [cevime-san@euskadi.eus](mailto:cevime-san@euskadi.eus)

**Idazkuntza Batzordea:** José Ramón Agirreabala, Iñigo Aizpuru, Miren Albizuri, Iciar Alfonso, María Armendáriz, Sergio Barrondo, Maite Callén, Saioa Domingo, Maitane Elola, Arrixeta Etxeberria, Julia Fernández, Ana Isabel Giménez, Naroa Gómez, Eguzkiñe Ibarra, Juan José Iglesias, Josune Iribar, Nekane Jaio, Itxasne Lekue, Mª José López, Javier Martínez, Amaia Mendizabal, Carmela Mozo, Elena Olloqui, Elena Ruiz de Velasco, Rita Sainz de Rozas, Elena Valverde.



<http://www.osakidetza.euskadi.eus/cevime>  
Intranet Osakidetza · <http://www.osakidetza.eus>



Eratbat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburretarako erabiltzea

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco